



Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la MATaren heriotzaren/bizitzaren **XVI. URTEURRENA** beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskerbaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekuatzat dugu; siste-matizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasun-lanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gil Ruizek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATAENEAN** egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 26an, larunbatean, goizeko 11etan.**

2021-22ko ikasturte honetan zehar, www.joseluisdelamata.com web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Donostiako **Izargain-DelaMataren Eskolan** astero garatzen ari garen **www 14. Mintegiarekin.**

Aresoko herria eta Izargaineko etxea zaharberrituta daude, pasa den Azaroan, Zapatistak **DE LA MATAENEAN** egon baitziren Bizitzaren aldeko Biran. Haientzat, **NEVENKA** antzezlan prestatu genuen. Programa-aldeketek eragotzi ziguten lana antzeztea. Orain, antzerki-lan hori eskaini nahi dizuegu zuek goza dezazuten. Hariak duintasuna defendatzeko emakume horren borroka biltzen du, bizitza arriskuan jarriz. Haren borroka mugarri bat izan zen estatu espainolean, erakutsi zuen adorea, jasan zuen **AKOSO** matxista eta patriarkala publikoan salatzeagatik eta justiziak hala jaso zuelako.

Halaber, aurten, **ITZIAR BEIZAMA ARZAMENDI**, Emakumea, Errepublikanoa eta Euskalduna, gure Eskolako kide maitatu eta baliotsuaren heriotzaren **X. Urteurrena** oroitzeko ekitaldia egingo dugu.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkaria** egingo dugu (bazkarian geratuko zaretenok mezua bidali ulumago@hotmail.com helbidera, **otsailaren 23a baino lehen, mesedez**).

Areson zuen zain gaituzue... Etorri!
Besarkada bero bat.

Izargain-Areso
DE LA MATAENEA
2022ko otsailan

